

ZUGAZTI - KEREXETA

**ARGI-BIDE
TXIKIA**

ARGI-BIDE TXIKIA

ZUGAZTI — KEREXETA

ARGI-BIDE TXIKIA

(NESKATO-MUTIKOENTZAKO
ELIZ-LIBURUA)

ZUGAZTI abadeak
gipuzkeraz eginda
eta

KEREXETA'TAR JAIME'K
bizkaieratuta

(Iriondo Aita prantziskotarraren
apaingarriak)

Nihil obstat:

Dr. A. CRUZ DE OMAETXEBARRIA

Censor Eccl.

Imprimatur:

✠ PAULUS, Episcopus Flaviobrigensis
Bilbao, 18 Augusti 1965

EDILI'k argitaratuta
Alda. Mazarredo, 12 bis
Tel. 23 80 03
BILBAO

«Encuadernaciones Belgas» irarkola
BILBAO
1965





GOIZEKO OTOITZAK

Jaungoikoari eskerrak, kristau zara; eta kristauok Gurutze Santua dogu ezaugarri. Egun barriaren asieran, egiozu zure buruari kristau zarean ezaugarri ori:

GURUTZE SANTUAREN † SEIÑALEA-GAITIK GURE † ARERIOAKANDIK ZAINDU GAIZUZ † GEURE JAUN ETA JAUNGOIKOA. AMEN.

AITAREN, ETA SEMEAREN, † ETA ESPIRITU SANTUAREN I Z E N E A N. AMEN.

Orain, gaurko zure eguna, oso-osorik, Jaungoikoari eskiñi bear dautsazu. Esan orretarako:

Nire Jesus maitea! Maria'ren Biotz garbiaren bitartez, gaurko nire otoitz, lan eta nekeak Zeuri eskitzen dautsudaz. Nire eguna, oso-osorik, Jaungoikoaren aintzarako izan daiteela gura dot, baita nire arimaren onerako be. Amen.

AINTZA AITARI, TA SEMEARI, TA
ESPIRITU SANTUARI.

LEN LEZ, ORAIN, BETI TA AMAIBA-
GAKO EGUNETAN. AMEN.

Zure asmo onak beteteko laguntza, Jaungoikoak emon bear dautsu. Eskatu egiozu, ba, laguntza ori, otoitzik ederrera esanez:

«Aita gurea, zeruetan zagozana: santifikatu bedi zure izena; betorkigu zure erreinua; egin bedi zure borondatea zeruan lez lurrean be.

Emon egiguzu gaur geure eguneroko ogia; parkatu eiguzuz gure zorrak, geuk gure zordunai parkatzen dautseguzanez; eta ez eiguzu itzi tentaziñoan jausten, gatxetik jagon baiño. Amen.»

Zeruan ba-dozu Ama on-ona: Andra Maria. Berba egiozu ta eskatu bere laguntza:

«Agur, Maria, graziaz betea: Jau-na da zugaz; bedeinkatua zara zu andra guztien artean; eta bedeinkatua da zure sabeleko frutua Jesus. Santa Maria, Jaungoikoaren Ama: erregutu egizu gu pekatarioren alde orain eta geure eriotzako orduan. Amen.»

Aita San Jose doatsua, bizitzan eta

eriotzan, laguntzaille ona da. Eskatu egiozu laguntza berari be:

«Aita San Jose doatsua! Lagun egidazu gaur ona izaten. Zure Seme ta nire Jaun Jesukristo'k gura dauan lakoa izan nai dot. Amen.»

Orain, Aingeru Zaintzailleari:

«Sortu nintzanetik Jaunak neure lagun emondako Aingeru Santua! Argitu, zaindu ta lagun zakidaz. Amen.»

Nok bere izeneko Santuari laguntza eskatzeko oitura, oso ona da. Esan egiozu, biotz-biotzez, zure izenekoari:

«Nire izeneko Santu agurgarria! Zeruan zorioneko zara, ta Jaungoikoaren aurrean bitarteko zaitut. Jaungoikoaren naia egin dagidala nik be lurrean, zeuk lez, zeruan zugaz

batera beti zorionsu izateko. Emon egidazu zuk orretarako bear dodan laguntza. Amen.»

ONA IZATEKO, ¿ZER EGIN BEAR DOT NIK GAUR?

Goizeko otoitza egin dozu. ¿Ez da olan? Ederto!

Orretzaz gaiñera, ona izateko, auxe egin bear dozu gaur:

Zure gurasoen esanak ondo egin, baita abade jaunarenak eta eskola-maisua-renak be bai.

Jaterakoan otoitz egin.

Zure lagunak maite ta onekaz ona izan. Guztiai ondo egin.

Lagun txarrakaz ez ibilli.

Zure etxeakoakaz batera Agurtza edo Errosario Santua esan.

Eta lotarakoan, gabeko otoitza egin.



GABEKO OTOITZAK

Oge-ondoan belaunikotuta egingo ba' zeuke, obeto. Egizu alantxe!

AITAREN, ETA SEMEAREN † ETA
ESPIRITU SANTUAREN I Z E N E A N.
AMEN.

Zure gabeko otoitza asteko, esan egizu biotz-biotzez:

«Zatoz, Jauna, etxe onetara, ta arerio gaiztoa bialdu egizu emendik urrun; dagozala emen zure Aingeru onak gu bakean gordeten; eta bego gugan beti zure bedeinkaziñoa. Jesu-kristo gure Jaunaren bidez. Amen.»

Onen urrengo, azterketa labur bat egin bear dozu egunero, igaro dan egu-

nean zelakoa izan zarean ikusteko. Ona emen orretarako itaun batzuk:

—Goizeko ta eguneroko otoitzak egin ete-dodaz? Baiña, ondo egin ete-dodaz?

—Eskolan edo ikastetxean ona izan ete-naz maisu ta nagusiakaz eta nire lagunakaz??

—Lagun txarrakaz ibilli ete-naz? Gauza txarrik ikasi ete-dot? Eta beste batzui irakatsi? Eta egin?

—Norbaitegaz asarratu ete-naz? Eta burrukan egin? Norbaiti txarrik egin?

—Guzurrik esan ete-dot?

—Esandako orduan joan ete-naz etxera?

Gogoan daukazuz orain gaurko zure

pekatuak. Esan egiozu Jesukristo'ri min dozula biotzean pekatu egiñaz; maite dozula ta ez dozula barriro pekatu egin nai. Orretarako, esan egiozu:

«Jesukristo neure Jauna, Jaungoiko ta gizon egiazkoa, neure Egille ta Salbatzaillea: zareana zarealako ta on utsa zareanez, gauza guztiak baiña maiteago zaitudalako, baita inpernuko oiñazez zigortu naikezulako be, damu dot, Jauna, damu dot Zu iraindua. Zure grazi zerutarrak lagundurik, asmo sendoa artzen dot ez geiago pekatu egitoko, autortu ta oben-nekea beteteko. Amen.»

Ez zaitez bein be gelditu Andra Maria'ri laguntza eskatu bagarik. Esan egiozu otoitz eder au, ogean sartu baiña len:

«Zeure besoetara nator iges, Jaun-

goikoaren Ama doatsu ori! Gure eskariai entzungor ez egin gure bearraldietan, galbide guztietatik onik atara baiño, Birjiña garbi-bedeinkatu orrek! (*Iru bidar «Agur Maria»*).

Txikitan artu egizu Andra Maria'ri «Agur, Erregiña» esateko oitura ona:

«Agur Erregiña, Ama errukiorra, geure bizitza, gozotasun eta itxaropena, agur. Zeuri deiez gagoz Eba'ren ume erbestetuok; antziz eta negarrez gatorkizuz negar-erri onetan. Ea, bada, gure bitarteko Andrea! : zure begi errukitsuok geugana biurtu egizuz; eta erbeste onen ondoren, erakuskuzu Jesus, zure sabeleko seme onetsi ori. O biotz bigun! O errukior! O Maria Birjiña gozoa! Gure alde otoitz egizu, Jaungoikoa-

ren Ama done orrek: Kristo'ren agintzariak jaristeko gei egin gaitetzan. Amen.»

Eriotz-aldirako laguntzaille ona gura ba'dozu, otoitz egiozu Aita San Jose'ri. Esan egiozu biotzez:

«Jesus gure Jaunaren eta Andra Maria'ren besoetan ilteko zoriona izan zenduan Jose doatsu ori! Jaritsi egidazu zuk lako eriotza izateko mesedea, Jesus eta Maria zeuk lez bizitza onetan maite izan ondoren. Amen.»

Goizean lez, eskatu orain be laguntza zure Aingeru Zaintzailleari; eta «Aitare» egin ondoren, lo egizu Jaungoikoa-aren bakean.



BURUZ IKASTEKO OTOITZAK

ONA EMEN GAZTETXOA ZAREAN
ARTEAN BURUZ IKASTEKO OTOITZ
LABUR-EGOKIAK:

«Jesus'en Biotz maitea! Zeugan
dot nire ustea.

Andra Maria guztiz garbia! Izan
bedi beti onetsia!

Jesus, Jose ta Maria! Artu egizue
nire arima!

Jesus, Jose ta Maria! Lagundu
zeuek nire eriotz-aldian!

Jesus, Jose ta Maria! Zeuokaz
atseden bedi bakean nire arima!

MIXIÑOEN ALDE

Aurtzaro deunarena:

«Andra Maria! Otoitz egizu gure
alde ta sinisbagako ume errukarrien
alde». (Agur Maria).

Sinismen-zabalkuntzarena:

«Xabier'ko Aita San Prantzisko!
Otoitz gure alde ta sinisbagako erru-
karrien alde». (Aita gurea ta Agur
Maria).



MEZA DEUNA

Meza Santua ez dogu kristauok bear dan beste maite. Txikitatik asi bear dozu Meza maite izaten; eta al dagizun guztietan, Mezatarra joaten. Gurutzeko opari ber-bera barritzen da altaran, Meza emoten dan bakoitzean.

Jaungoikoa gure jabe dala autortzeko; Aren eskuetatik artu doguzan on guztiakaitik eskerrak emoteko; Aren zuzentasunari gure pekatuen zorrak ordaintzeko; eta Aren laguntza ta grazi ugariak eskatzeko, Meza santua lakorik ez da ezertxo be. Meza santuan, Jesukristo'k diardu Aita Jaungoikoari lau egikizunok egiten, gure ordeztu eta gure izenean.

Ona emen Meza deuna entzuteko era egokia:

ASIERA.

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

Jauna! Zeure altara santura nator; Zeu zara nire gaztetasunarentzat poza ta indarra. Meza au ondo entzun gura dot, Zuri poz emoteko ta ni ona izateko.

CONFITEOR.

Abade jaunak, makurtuta, bere pekatuen parkamena eskatzen dautso Jaungoikoari.


Parkatu, Jauna, neuri be nire pekatuak. Damu dot, Jauna, damu dot Zu iraindua; asmo sendoa artzen dot geiago pekatuak ez egiteko, pekatu-rako bideak itzi, autortu ta obeneke beteteko. Amen.

KYRIELEISONAK.

Jauna, erruki zakiguz (*Iru bidar*).
Kristo, erruki zakiguz (*Iru bidar*).
Jauna, erruki zakiguz (*Iru bidar*).

GLORIA.

Aintza zero goietan Jaungoikoari ta bakea lurrean gogo oneko gizona! Autortzen zaitugu. Bedeinkatzen zaitugu. Gurtzen zaitugu. Goratzen zaitugu. Aitaren eskumaldean jesarrita zagozan ori, erruki zakiguz. Espiritu Santuagaz Jaungoiko Aitaren zorionean.



IRAKURGAIA edo EPISTOLA.

Jauna! Zeuk irakatsitakoa diardu irakurten abade jaunak. Irakatsirik ederrena ta bearrezkoena maitasun-irakatsia dogu: Zu maiteen izatea ta lagun-urkoa geure burua lez maite izatea. Maite zaitut, Jauna. Iñori ez dausat kalterik egingo. Kalterik ez; eta al dagidan on guztia bai.

BARRI ONA edo EBANJELIOA.

Orain zutundu ta «Gurutze Santuaren» egin bear dot: bekokian, bururakizun eta pentzamentu txarrrik ez izateko; agoan, berba gaiztorik ez esateko; bular-gaiñean, asmo ta gogo okerrik ez izateko.

Jauna! Sendotu Zeuk nire erabagiok; Zuk agindutakoa egiteko gertu nago ta zutunik. Zeure Lege santuak

agintzen daustan lez bizi nai dot beti. Lagundu Zeuk. Amen.

KREDOA.

(Ez da beti esaten).

Abade jaunak «Kredoa» esaten diardu. Nik be nire sinismena autortu egin bear dot; eta orretarako, Kredoa esan:

Sinisten dot Jaungoiko Aita alguztiduna, zeru-lurren egillea. Sinisten dot Jesukristo, bere Seme bakar gure Jauna, Espiritu Santuaren egiñez sortu ta Maria Birjiñagandik jaio zana; Pontzio Pilato'ren menpean nekaldua, gurutzean josia, illa ta obiratua izan zana; inpernuetara jatsi ta irugarren egunean illen artetik biztu zana; zeruetara igo ta Jaungoiko Aita alguztidunaren eskumaldean jarrita dagoana; andik biziak

eta illak epaitzera etorriko dana. Sinisten dot Espiritu Santua; Eliza Santu katolikua; Santuen alkartasuna; pekatuen parkamena; ildakoen biztuera, ta betiko bizitza. Amen.



ESKINTZA.

Jauna! Zure Gorputz eta Odol laster biurtuko diran ogi ta ardaoa eskintzen dautsuguz abadeak eta nik. Ardao-ogi orrekaz batera, neure gor-

putza, biotza ta arima; nazan eta daukadan guztia eskiñi nai dautsut. Beti-beti Zeurea izan nadilla ta Zeuk nai lakoa.

ORATE, FRATRES.

Abade jaunak otoitz egiteko agintzen dausku. Berak, eta beragaz batera nik eskintzen dautsudan opari au, Zuri atsegin izan dakizula nai dau. Neuk be bai.

Artu begi Jaunak zure eskuetatik opari au, bere izenaren gorapen eta aintzarako, ta gure ta bere Eliza santu osoaren onerako.

SANCTUS.


Santu-santu-santua da zeruko indarren Jaungoiko Jauna. Zeru-lurrak zure aintzaz beterik dagoz. Ain-

tza Zuri goietan! Bedeinkatua Jau-
naren izenean datorrena. Aintza Zuri
goietan!

KONSAGRAZIÑO-AURREA.

Mezertia da Meza santuaren unerik
bikaiñena; eta laster da bera. Abadeak
otoitz berotan diardu. Otoitz egizu zeuk
be aregaz batera.

Aita errukiz betea! Jesukristo'ren
bidez eskintzen dautsugun opari au,
artu eiguzu biotz onez. Eliza Ama
Santuaren onerako eskintzen dautsu-
gu: zaindu egizu bere arerioakan-
dik; buru dauan Aita Santua be bai.
Gogoan izan egizuz nire senitarteko
guztiak be: nire senide, adiskide ta
ongilleak; baita gizon gaiztoak be.
Geroago ta geiago ezagutu ta maite
zaiguzala guztiok.



MEZERDIA.

Meza-emoilleak ogia eskuetan artu,
altararantz makurtu ta esan dautsaz
mezertiko berbak ogiari: «Au neure
gorputza da». Ogia Jesukristo'ren Gor-
putz biurtu da! Abadeak, belaunikotu-
rik gurtu egiten dau, ta erriari erakus-
ten dautso, eliztarrak be gurtu dagien.

Kristo'ren Gorputzari begira, esan
egizu biotz-biotzez:

NEURE JAUN ETA NEURE JAUNGOIKOA!

Gero edontzia edo kaliza ardaoaz artu, makurtu ta mezerdiko berbak esan dautsaz ardaoari: «Au neure odol-ontzia da». Eta ardaoa Jesukristo'ren Odol biurtu da!

Abadeak kaliza jasotean, gurtu ta esan egizu:

NEURE JAUN ETA NEURE JAUNGOIKOA!

Or dozu altara-gaiñean Jesus, egun baten Gurutzean lez, orain be geure pekatuak parkatzeko opari eginda. Biztu egizu biotzean, bizitza osoan egin dozuzan pekatu guztien maite-damua. Eskiñi egiozuz orain Aita Jaungoikoari, Jaungoikoaren Seme dan Jesukristo'ren Gorputz-Odolak.

Jauna! Zure Seme ta gure Jaun

Jesukristo'ren Nekaldi doatsua ta bere biztuera ta zeruratze goragarria gogoan doguzala, betiko bizitzarako Ogi santua ta betiko osasunerako Kaliza eskintzen dautsuguz. Arpegi onez begiratu ta ontzat artu egizuz. Zure Aingeru santuak eroan dagizala zure altara aundi orren aurrera; altara orretatik zure Semearen Gorputz eta Odol santuak artzen doguzanok, zeruko graziz bete gaitzean. Kristo gure Jaunaren berberaren bidez. Amen.

Abadeagaz batera, otoitz egizu ildakoen alde be:

Gogoratu egizuz, Jauna, eriotzak gure artetik eroan dauzan kristauak be. Asko dodaz aurretik joanak:

etxekoak, lagunak, ezagunak, errikoak... Meza onen indarrez, atara egizuz garbitokiko sutatik eta eroan betiko zorionera.

Orain, Meza-entzuleen alde:

Gogoratu gagizuz geu be, morroi gaituzun pekatoriok be. Zure errukian uste on aundia dogu; eta, gei ez gareanarren, sartu gagizuz egunen baten zure santuen lagunartean, Jesukristo gure Jaunaren bitartez gure pekatuak parkatuta. Amen.

PATER NOSTER

«*Otoitz egin daigun!*»

Olantxe dirautse abadeak Meza entzuten diarduenai. Esan zeuk be abadeagaz batera:

AITA GUREA, zeruetan zagozana, santifikatu bedi zure izena; betorkigu zure erreñua; egin bedi zure borondatea zeruan lez lurrean be. Emoiguzu gaur geure eguneroko ogia; parkatu eiguzuz gure zorrak, geuk gure zordunai parkatzen dautseguzanez; eta ez eiguzu itzi tentaziñoan jausten, gatxetik jagon baiño. Amen.

Andra Maria, Jaungoikoaren Ama beti Birjiña ta Santu guztiak bitarteko artuta, biotzez eskatzen dautsugu, Jaungoiko aundi orri: emon eiguzuz zure graziaren bake ederrean bizi izatea, bake gozo ori bein be galdu bagarik. Jauna! Emon egiozu mundu naastuari be, ain bearrezko dauan zure bakea. Orretarako, biurtu daitela Zeugana. Amen.


AGNUS DEI

Munduaren pekatua kentzen dozun Jaungoiko-Bildotsa, erruki zaviguz.

Munduaren pekatua kentzen dozun Jaungoiko-Bildotsa, erruki zaviguz.

Munduaren pekatua kentzen dozun Jaungoiko-Bildotsa, emoiguzu bakea.

Gure Jaun Jesukristo, Jaungoiko biziaren Semea! Zure Gorputz eta Odol santuen bitartez eskatzen dautsugu; atara gagizuz gure griña txar guztietatik. Egizu, zure grazia lagun dogula, ez gaitezala bein be zeruko bidetik aldendu. Jauna!, ez dagigula Zugandik alde egin.



JAUNARTZEA

Bai dala eder, abadeak Jauna artu ondoren, Meza santua entzuten diarden kristau guztiak be Jauna artzea! Jaunartzeko gertu ba'zagoz, zoaz zeu

be mai santura, ta artu egizu Kristo, bere Gorputz, Odol, Arima ta Jaungoikotasunaz, zure arimaren janari izan daiten. Bestela, egizu gogozko Jaunar-tzea, onetara:

Jesus ona! Ez dot nik gaur Zu agoz jateko zorionik. Baiña, zator nire biotzera; maite-maite zaitut; santu egin nagizu. Zatorkidaz, Jesus maite-laztan ori, eta bizi zaitez beti nire biotzean. Amen.

AZKEN-OTOITZAK

Abadeak azken-otoitzak esan dagizanean, egizu zeuk be otoitz au:

Eskerrak Zeuri, Jaungoiko guztiz on orri, Meza santua eskintzeko medea egin daustazulako. Bere bitartez, emon egidazu ondo bizi ta ondo ilteko laguntza, gero Zugaz zeru zorionsuan izan naiten. Amen.

ONESPENA

Mezaren amaieran, abadeak Jaungoikoaren izenean onespena emoten dautso Meza entzuten diarduan erriari. Artu egizu zeuk be belauniko ta «Aitaren» egiñez. Eskatu egiozu Jaungoikoari Meza entzutean egin dozuzan uts-egiñen parkamena.



OTOITZ EDERRAK

AGUR MARIAK (*Angelusa*)

B(*atek*). — Jaunaren aingeruak
Maria'ri iragarri eutsan.

E(*rantzun*).—Eta Espiritu Santua-
ren egiñez Ama egin zan. (*Agur
Maria*).

B.—Ona emen Jaunaren mirabea.

E.—Egin bedi nigan zeuk diñozu-
nez. (*Agur Maria*).

B.—Eta Jaungoikoaren Semea gi-
zon egin zan.

E.—Eta geure artean bizi izan
zan. (*Agur Maria*).

B.—Otoitz egizu gure alde, Jaungoikoaren Ama done orrek.

E.—Kristo'ren agintzariak jadetsi daikeguzan.

B.—OTOITZ EGIN DAIGUN: Isuri egizu gure arimetan, Jauna, zure grazia: Aingeruak iragarrita zure Seme Kristo gizon egin zala jakin genduan ezkerro, bere nekaldi ta eriotzagaitik, biztuta zeru ederrera eldu gaitezana. Kristo gure Jaunaren berberaren bidez.

E.—Amen.

ESPIRITU SANTUARI

Zatoz, Espiritu Santu ori! ; bete egizuz zure zintzoen biotzak, eta izi-otu egiezu zure maitasun-sua.

B.—Bialdu egizu zeure Gogoa ta bizi barria artuko dabe.

E.—Eta lur-azala barriztu egingo dau.

OTOITZ EGIN DAIGUN: Zintzoen biotzak Espiritu Santuaz argitu zenduzan Jaungoikoa: eiguzu, Espiritu berorren bidez, zuzenbidea maite izan daigula, ta Berorren atsegiñez beti poztu gaitezala. Kristo gure Jaunaren bidez. Amen.

ALTARAKO JESUS'I IKUSTALDIA

Altarako Jesus, nire Aita maitea! Ikustaldi bat egitera natorkizu, ta gauza asko esan nai dautsudaz gaur Zuri.

Maite-maite zaitudala; Zu neure Aita zareala; Zugan uste aundia dodala; Zeuk gura dozunaz poz-pozik

nagoala. Ni zuretzat ona ez nazala, ta orrek min aundia emoten daustala biotzean; parkaziñoa eskatzen dautsudala; eta aurrerantzean ohea izan nai dodala.

Alan be, maite-maite zaitudala; Andra Maria, zure ta nire Ama be, oso maite dodala; baita zure Aita San Jose be.

Niri zure eskutik ez izteko; ni zerruratzeko. Osasuna emoteko, egoki ba'yt; eta al daikeedan guztiai ondo egiteko gogoa ta laguntza be bai.

Nire Jaun eta Aita ona! Zure Eliza begiratzeko ta laguntzeko; Erroma'ko gure Aita Santua be bai, baita gotzain eta abadeak be.

Begiratu ta lagun egiteko neureai: senitartekoai, adiskideai, lagunai, on-

gilleai ta arerioai; arerioai be bai! Guztiok zerura joan daitezala; eta orain zure laguntza somau dagiela.

Nire lantxoak ondo egiteko be laguntza emon egidazu.

Prailleai ta monjai be laguntza emon egiezu; eta geisorik dagozanai ta il-zorian aurkitzen diranai.

Mixiño ta mixiolariyai, sinisbageai, sinismen-ausleai ta pekatariyai. Giltzapean, atzerrian eta nekepean dagozanai. Beartsuai errukiz begiratzeko; ta garbitokiko arimak lenbailen zerruratzeko.

Gure erriari lagun egiteko, ta agintariyai ta menpekoai; gurasoai, umeai ta gazteai.

Barriro etorri naitenean, ohea izan nadilla. Agur, nire Aita orri! Urrengorarte!

BIRAOEN ORDAIN-OTOITZA

Bedeinkatua izan bedi Jaungoikoa.

Bedeinkatua izan bedi bere Izen santua.

Bedeinkatua izan bedi Jesukristo, egiazko Jaungoiko ta egiazko gizona.

Bedeinkatua izan bedi Jesus'en izena.


Bedeinkatua izan bedi bere Biotz jaungoikozkoa.

Bedeinkatua izan bedi bere Odol guztiz ederra.

Bedeinkatua izan bedi altarako Sakramentu guztiz santua.

Bedeinkatua izan bedi Espiritu Santu Poz-emoillea.

Bedeinkatua izan bedi Jaungoiko-



aren Ama goragarri, Maria guztiz santua.

Bedeinkatua izan bedi bere Sortze guztiz santu ta orbanbagea.

Bedeinkatua izan bedi bere Jaso-kunde goragarria zerura.

Bedeinkatua izan bedi Maria Birjiña ta Amaren izena.

Bedeinkatua izan bedi bere senar guztiz garbi Jose santua.

Bedeinkatua izan bedi Jaungoikoa bere aingeru ta Santuakan.

AITA SANTUAREN ALDE

B.—Otoitz egin daigun gure Aita Santu Paulo'ren alde.

E.—Jaunak gorde, sendotu ta zorionsu egin dagiala lurrean, eta ez

dagiala bere arerioen eskuetan jausten itzi.

Otoitz egin daigun:

Kristau guztien artzain eta buru zarean Jaungoikoa!: begiratu egizu biotz onez zure Elizaren artzain egin dozun zure morroi Paulo; bere menpekoai, berbaz eta egitez, gogozko gaietan on egin dagitsela eskatzen dautsugu: bere zainpean dagoan artaldeagaz batera, betiko bizitza jade tsi dagian. Kristo gure Jaunaren bizdez. Amen.

ABADEEN ALDE

Gure fedea sendotu ta geitzeko: *Emoiguzuz, Jauna, abade onak.*

Gure itxaropena biztuteko: *Emoiguzuz...*

Gure maitasuna emonkorrago biurtzeko: *Emoiguzuz...*

Onbideetan bizi izaten eta aurre-ra egiten laguntzeko: *Emoiguzuz...*

Gizon eta emakume guztiai zure irakatsiak jakiñerazoteko: *Emoiguzuz...*

Irakatsi o k e r r a k zapaltzeko: *Emoiguzuz...*

Kristau-arteko oiturak obetzeko: *Emoiguzuz...*

Oitura txarrak galtzeko: *Emoiguzuz...*

Kristau-usaiña galdu daben sendi ta gizartea kristau biurtzeko: *Emoiguzuz...*

Zure Elizari eusteko: *Emoiguzuz...*

Gure gogo-biotzak bide zuzenetik eroateko: *Emoiguzuz...*

Zure Biotzaren aberastasunak guri erakusteko: *Emoiguzuz...*

Zure Biotz agurgarriaren aginpi-dea lenbailen erakarteko: *Emoiguzuz...*

OTOITZ EGIN DAIGUN

Jesus'en Biotz, Abade santua! Zure abadeak «*gizargi ta lurrarentzat gatz*» izan daitezala nai dozu Zuk. Entzun gure otoitzak, eta emon egiezuz zure ordezeko abadeai grazi ugariak eta laguntza aundiak: eurak Zuganako maitasunean iziotuta, beste guztien biotzak be maitasun-sugar bitan kiskaltzen jarri dagiezan.

Ugaritu egizuz abadegeiak geroa-

go ta geiago, ta egizuz zure Biotzak
nai dauzan lakoak.

Jauna! Asko dira eritzi ta oitura
okerren menpean bizi diranak; ezin
kontau-ala, Zu ezagutzen eta zure
morroitzan epel diranak; ez gutxi,
onbidean aurrera egiteko nok iraka-
tsi ta nok lagundu bear dabenak.
Barrizanok eta beste asko be zuzen-
tzeko, emon egiguzuz abade on-san-
tuak; eta euron bidez, betorkigu
zure agintaritzza. Amen.



ANDRA MARIA'RI ESKINTZA

Ene Ama maitea! Oso-osorik es-
kintzen dautsut nire burua: zeure-
tzat nire begi, belarri, miin eta bio-
tza. Osoan zeurea nazan ezkerro, zeu-
re gauza ta ondasun lez zaindu ta
gorde nagizu, arren.

(*Iru Agur Mari*).

NAZARET'EKO SENDI DOATSUARI

Jesus maitasunez betea! Lurrean bizi izateko, Nazaret'eko Sendi doatsua aukeratu ta ikasbide ederrez apaindu zenduan. Begiratu egizu gaur zerutik gure etxea; ba-dakizu zeurea dana; ba-dakizu Zeuri eskiñi ta oparizat emon dautsuguna. Be-deinkatu gure lan guztiak; arindu nekeak; eta lagun egiguzu larrialdietan, gure sendia zeurearen antzekoa egiten beti alegindu gaitezan.

Andra Maria, Jesu'en Ama doatsua: entzun gure eskaria.

Jose doatsua, Sendi deunaren buru ta zaintzaillea: zaindu beti gure sendia. Amen.

JESUS'EN BIOTZARI

Neure Jesus maitea! Maria'ren Biotz garbiaren bitartez, gaurko eskari, neke ta egiteko guztiak eskintzen dautsudaz, egiten yatzuzan iraiñen orde, eta zure Biotz santu orren asmo guztietarako.

LOIOLA'TAR IÑAZIO DEUNARI

1491'garren urtean jaio zan Loiola'n, Gipuzkoa'n. Gudari-bizitza alde batera itzita, Jaungoikoagana biurtu zanean, lenengo Arantzazu'ra joan zan, Andra Maria'ren oiñetan bere burua eskintzera. Lagundi bat sortu eban, «Jesus'en Lagundi» izena daroana. Goiburutzat, auxe artu eban: «Jaungoikoaren aintzarik aundienerako». Erroma'n il zan, 1556'garren urtean. Euskaldun au, Elizaren Santuarik audienetarikoa da.

OTOITZA: Zure izenaren aintzarik aundiena zabaltzeko, Iñazio doatsua-

ren laguntza barriaz, lurreko Eliza indartu dozun Jaungoikoa: bera lagun dogula, ta bere antzera, lurrean burruka egiñik, beragaz zeruan ko-roia artu dagigula egizu. Kristo gure Jaunaren bidez. Amen.

XABIER'KO PRANTZISKO DEUNARI

Yatsu eta Azpilikueta'tar Prantzisko, Xabier'ko gazteluan jaio zan, Naparroa'n, 1506'garren urtean. Duque de Alba'ren gudariak Naparroa indarrez azpiratu ebenetik urte batzuetara, Paris'ko Ikastetxe Nagusira joan zan, ikaskizunak egitera. Antxe ezagutu eban beste euskaldun bat, Loiola'tar Iñazio, ta beronek sorturiko Lagundi barrian sartu zan. India ta Japon'eko mixiñoetara joan zan, eta millakak ekarri ebazan Kristo'ren sinismenera. Txina'runtz joiala, Sanzion izeneko ugartean il zan, ezpanetan euskerazko otoitzak ebazala, berrogei urteko. Mixiño guztien Zaindari da.

OTOITZA: Prantzisko doatsuaren irakatsiz eta mirariz, Indiarrak zeure Elizara ekarri zenduzan Jaungoikoa: egizu biotz onez, aren irabazi aundiak gogoratzen doguzan ezkerro, ontasunez be aren antzeko izan gaitetzala. Kristo gure Jaunaren bidez. Amen.

BERRIO-OTXOA'TAR BALENDIN DOATSUARI

Elorrio'ko seme au, 1827'garren urtean jaio zan, Otsaillaren 14'an. Abade eginda gero, Mixiñoetara joateko gurariz, praille sartu zan. Manila ta Tonkin'era bialdu eben, eta 31 urteko zala, gotzain aukeratu eben. Bereala, Kristo'ren arerioak eskua ezarri ta samea moztu eutsoen. 1906'garren Orrillaren 20'an, Aita Santu Pio X'garrenak Eliza Amaren Doatsu edo Beato egin eban. Bere gorpuzkin geienak Elorrio'n dagoz.

OTOITZA: Martiri ta gotzain Ba-
lentin ospetsua Zu autortzen adore-
tsu egin zenduan Jaungoikoa: egizu,
aren garaipenak (irabaziak) poztuten
gaituan ezkeru, a zeruan ikusteak be
poztu gagizala. Kristo gure Jaunaren
bidez.

MAIA BEDEINKATZEKO OTOITZA

JAN AURRETIK ESATEKO.—Bedein-
katu gagizuz, Jauna; baita zure esku
zabalari eskerrak, orain artu bear do-
guzan janariok be. (*Aita Gurea,*
Agur Maria, ta Aintza Aitari).

Zeruko Errege aundiak ango
maian batu gagizala. (*Aitaren...*).

JAN-OSTEAN.—Eskerrak damotsu-
guz Zeuri, zeure mesede guztien al-
derako, amaibagako egunetan Errege

bizi zarean Jaungoiko alguztidun
orri. Amen.

B.—Jaungoikoak bere b a k e a
emon daiskula.

E.—Eta gero betiko bizitza.
(*Aitaren...*).

ZURE LANTXOAK ASI BEAR
DAGIZUZANEAN

Jauna: lan au Zeuri eskintzen
dautsut; bedeinkatu egizu, arren.
(*Aitaren...*).

ERIoTZA ONARTZEKO

Nire Jaun eta Jaungoikoa! Orain-
dixek artzen dot gogo onez, egunen
baten Zeuk emonda, niretzat izango
dan Zeuk nai dagizun lako eriotza,

bere larri, bildur eta naigabeakaz.
Amen.

IL-ZORIAN DAGOZANEN ALDE

Il-zorian egon zintzazan Jesus'en
Biotza! Erruki zakiez azkenetan da-
gozanai. Amen.

GARBITOKIKO ARIMEN ALDE

(De profundis)

Barru-barrutik egiten dautsut dei,
Jaun orri! ; entzun, Jauna, nire es-
karia.

Biurtu zure belarriak nire otoi-
deira.

Gure gaiztakeriak gogoan artu ba'
dagizuz, Jauna, ¿nor egongo da zu-
tik zure aurrean, Jauna?

Baiña Zu, Jaun ori, biotz-samur
zara-ta, zeure legea dala bide, Zeu-
gan dot nire ustea.

Egusentitik gaberarte, itxaron
begi Israel'ek Jaunagan.

Jaungoikoa guztiz errukiorra da-
ta; bere parkamena, barriz, guztiz
ugaria.

Eta Berak askatuko dau Israel
gaiztakeri guztietatik.

Emon egiezu, Jauna, betiko atse-
dena; eta betiko argiak argi egin
begie.



AUTORTZA

Bateatuta gero egindako pekatu astunak parkatzeko, AUTORTZA deritxon Sakramentua jarri euskun Jesukristo gure Jaunak. Zerura joateko, ez dagoz bide bi baiño: edo, bateatuta gero pekatu astunik ez egin, edo, pekatu aundirik egin ba'da, Jaungoikoak parkatzeko, ondo autortu. Ez dago beste biderik.

Ona emen ondo autortzeko egin bear dozuna:

AZTERKETA-AURRERAKO OTOITZA

Nire Jaungoiko maitea! Autortza on bat egin gura dot. Emon egidazu nire pekatu guztiak gogoratzeko argia ta laguntza. Ezagutu dagizala

orain, egunen baten zure aurrera agertu naitenean, ezagutuko dodazan lez. Andra Maria, nire Ama ona! Laguntza-eske natorkizu zuri be. Otoitz egizu nire alde. (*Aita Gurea, Agur Maria, ta Aintza*).

Egizu orain zure pekatuen azterketa. Emen jarten dautsudaz itaunak:

Zenbat egun dira azkenengoz autortu zintzazala? Ondo autortu etezintzazan? Itzi ete-zenduan pakaturik lotsaz esan bagarik? Abadeak emon eutsun oben-nekea bete etezenduan?

Lenengo agindua: Jaungoikoa maiteen izatea: Goiz-gabetako ototzak ondo egin ete-zenduzan? Elizan ondo egon ete-zara? Kristau-ikasbi-dea ikasten dozu?

Bigarren agindua: Jaungoikoaren izena alperrik agotan ez artzea: Jaungoikoaren izena begirune ta lotsa bagarik erabilli ete-dozu? Jaungoikoaren kontra, Andra Maria'ren kontra, edo Santuen kontra zerbait esan ete-dozu? Premiña bagarik zizñik egin ete-dozu? Guzurras be bai? Berba txarrik esan dozu?

Irugarren agindua: Jai-egunak jai egitea: Al izanda, Mezatara joan bagarik gelditu ete-zara domeka ta jai-egunetan? Meza osoa entzun dozu? Elizan ondo egoten zara? Premiña bagarik, barbarik egin dozu? Elizan olgetan ibilli be bai? Zure aldame-nekoari Meza ondo entzutea galerazo egin dautsazu? Galerazota dagoan lanik egin dozu jai-egunean? Ordu bi baiño geiago be bai? Premiña ba-

garik, ordu bi baiño geiagoko lana egitea, pekatu astuna da.

Laugarren agindua: Gurasoak aintzat artzea: Gurasoen edo zu baiño aundiagoen esanik ez dozu egin? Begirunez eta lotsaz egin dautsezu berba? Senideai buruz, ona izan zara? Eskolako irakasleai esana egin dautsezu? Eskolan ikasten alegiñak egin ete-dozuz? Edo astirik alperrik galdu? Etxeko guztiakaz ondo konponetzen zara? Gurasoak nai ez daben lagunakaz ibilli ete-zara? Nai ez daben lekuetara joan? Esandako orduan etxeratu?

Bosgarren agindua: Iñor ex iltea: Norbait joka erabilli ete-dozu? Norbaitetzaz txarto esan dozu? Kalterik opa izan dautsazu? Pekaturako bi-

dean norbait sartu dozu? Norbaiti buruz, ikusi-eziñik ba'dozu? Olgetan zabizanean, zure lagunen bategaz asarratu zara?

Seigarren eta bederatzigarren aginduak: Aragikeririk ez egitea ta nai ez izatea: Gauza txarrik ekarri dozu burura? Esan? Egin? Bakarrik, edo lagunakaz? Olgeta itxusietan ibilli ete-zara? Argazki edo foto itxusirik ikusi ete-dozu? Txiste zikiñik esan? Gauza zikiñik ikutu ete-dozu? Ikusi? Lagun txarrakaz ibilli zara? Zine txarretara joan? Gauza zikiñak egiteko gogorik izan ete-dozu, zeuk gurata? Norbaiti gauza zikiñik egiten irakatsi ete-dautsazu?

Zazpigarren eta amargarren aginduak: Ez ostutea, ta iñoren gauzarik

okerbidez nai ez izatea: Zer bait ostu dozu etxean? Eta etxetik kanpora? Zurea ez danik gorde ete-dozu zuretzat? Eta ondatu? Jokoan tranparik egin ete-dozu?

Zortzigarren agindua: *Guzurrik ez esatea:* Guzurrik esan dozu? Guzurraz nor bait salatu (akusau) ete-dozu? Errurik berak izan ez-ta, berari bota ete-dautsazu? Besteen gauzak batean entzuten eta bestean esaten jardun dautsazu? Iñoren utsegiñak, diran baiño aundiago esan ete-dozuz?

Elizaren aginduetakoak: Meza ondo entzun dozu? Zure autortzak ondo egin dozuz? Jaunartzeak be bai? Okela-izte egunetan, okelarik jan dozu?

Azterketa egin ondoren, ba-dakizuz autortu bear dozuzan pekatuak. Bai gauza txarra ta itxusia dala pekatua! Ikusi egizuz sorta baten zure pekatuak... Zuk emon dautsazun naigabea Jesus, zure Jaungoikoari! Garbatu zaitetz orrenbeste pekatu egiñaz, eta agindu egiozu Jaungoikoari ez dozula orrelakorik barrero egingo.

Zure biotzean maite-damua sortzeko alegiñak egizuz. Orretarako, esan biotzbiotzez eta astiro-astiro «Jesukristo neure Jauna» (17 orrialdean).

AUTORTU AURREKO OTOITZA

Errukiaren Jaun eta Jaungoikoa! Ume-umea naz oraindiño; eta zenbat pekatu egin dodazan! Gaiztoa be gaiztoa izan naz, gero, Zutzaz! Zu nitzaz orren ona ta ni Zutzaz onen gaiztoa! Lotsaz eta damuz bererik nago. Oraintxe noa autortzera, zure ordezeko dan abade jaunagana.

Emon egidazu Zeuk ondo autortzeko laguntza. Zabaldu Zeuk nire ezpanak eta askatu nire miiña, ezelako lotsa ta bildur bagarik, pekatu guztiak ondo esan dagidazan. Geiago pekatu-rik ez egiteko asmo sendoa dot, baita pekatuak bide guztietatik alde egiteko be. Zeruko Ama, lagundu Zeuk be, autortza ona egin dagidan. Amen.

Zoaz orain abade jaunagana, ta esan egiozu: *Agur, Maria, guztiz garbia*. Gero, azkenengo autortza egin zenduane-tik, zenbat egun diran esan. Gero, zeu-re pekatuak autortu. Pekatuak esanda gero, entzun ondo ta gogoan artu aba-deak dirautsuna, ta egin berak agintzen dautsuna. Eta oben-nekea betetea, ez geroko itzi. Al ba'dozu beintzat, lenbail-en bete.

AUTORTUTA GERO ESATEKO OTOITZA


Nire Jesus maite-maitea! Au nire poza ta au nire biotzeko nasaitasuna! Nire pekatu guztiak parkatuta... nire arima garbi-garbi... Zu ta ni ba-keak aginda: Zuk ni maite; nik Zu maite... ona izateko asmo ta indar barriz beteta biotza... Eskerrik asko Zeuri, Jesus on orri!

Zugaz eskerronekoa izan nai dot, eta ez dot geiago pekatu-rik egingo; pekatu astunik, beintzat, bein be ez, eta, ezta txikirik be! Asmo santu au beteteko laguntza Zeuk emon, Jesus on orrek!

Andra Mari, nire Ama laztan ori! Aita San Jose maitea! Aingeru zain-tzaillea! Santu guztiok! Otoitz egi-zue nire alde, pekatutik urrun ibilli-

ta, lurrean beti Jaungoikoaren adis-
kide iraun dagidan, gero zuekaz ba-
tera, zeruan beti Bera goratzen eta
maitatzen bizi izateko. Amen.

ENTZUN: *Pekatu astunik ez ba'
daukazu, ez dozu autortu bearrik
Jaunartu bear dozun bakotxean.
Pekatu ariñak parkatzeko, naiko
dozu «Jesukristo neure Jauna»
esanaz (17 orrialdean).*



ONA EMEN GAZTETXO ZAREALA
IKASI BEAR DOZUN BESTE GAUZA
BAT; GARRANTZI (INPORTANTZI)
AUNDIKOA, GAIÑERA!: *Maite-damuz
garbatzen.*

Ba-dira bizitza guztian pekatu astu-
nik egin ez dabenak. Orrelakoak beti
maite dabe Jaungoikoa. Zoriontsuak!
Ia zeuk be beti Jaungoikoa izaten do-
zun maiteen eta ez dozun bein be peka-
tu astunik egiten.

Baiña, zoritxarrez, pekatu astunen
bat egiten ba'dozu, zer egin dozun kon-
turatu zaitezanean, garbatu zaitez *len-
bailen maite-damuz.*

Orrela, zure pekatu astuna parkatuta
geldituko yatzu autortu baiño len; alan
be, pekatu ori esan egin bear dozu
lenengo autortzan.

Maite-damuz garbatzeko, naikoa dozu
biotz-biotzez «Jesukristo neure Jauna»
esateaz.



JAUNARTZEA

Bizitzan egin daiteken ederrenetari-koa da Jaunartzea; baita arimarentzat onik aundienetarikoa be. Gorputz eta arima Jaungoiko Jaunagaz bat egitea da Jaunartzea.

Gorputza gose-egarri dogunean, jan egiten dogu ta edan. Arima gose-egarri danean be, ba-dogu janari ta edari bikain-bikaina: Jesukristo'ren Gorputz-Odolak.

Kristo'gaz bizi nai ba'dogu, jaunartu dagigun. Jesukristo'k berak dirausku: «*Nire aragia jaten eta nire odola edaten dauana, Neugan dago, ta Ni aregan*» (Jon, 6, 56). Jan dagigun, ba, eta edan, bizi gaitez!

Txikia zara oraindiño; eta txiki-txiki-tarik ikasi bear dozu Jaunartzeak ondo egiten. Eta lenengo Jaunartzea egiteko ba'zabiz, alegindu be alegindu zaitetz

Jaunartze ori ondo baiño obeto egiteko!

Jesus zoratzen dago zure biotzean sartu gurarik. Zuretzat, barriz, Bateo santuko eguna kendu ezker, lenengo Jaunartze-eguna da zure bizitzako egunik ederrena. Bai, orixel! Poztu egin bear dozu egun eder ori ba-datorkizula jakin dagizunean. Eta on-ona izaten alegindu. Zure otoitzak obeto egin; etxean eta eskolan on-ona izan; gurasoen eta zu baiño nausiagoen esanak zeatz-zeatz bete; senide, lagun eta adiskideakaz ohea izan. Eta zure biotzera etorri bear dauan Jesus'i, ta zeruko zure Ama Maria'ri, ta Aingeru Zaintzailleari, ta zure izeneko Santuari, Lenengo Jaunartzea ondo-ondo egiteko laguntza eskatu, egunero ta sarritan eskatu: egin bear dozuna, egikizun oso aundia da-ta.

Eta beste gauza bat: lenengo Jaunartzea egiteko gertatzen diarduzuenoi abade jaunak esaten eta irakasten dautsuezan gauzatxoak, ondo-ondo entzun eta obeto ikasi. Eta egun aundi orreta-

rako arima garbi-garbi itziko dautsun autortza, eder-ederra izan dadilla. Egin orretarako alegiñak.

JAUNARTZE-AURRERAKO OTOITZAK

SINISMEN-EGINTZA. Sinisten dot, Jesus maitea, orain artzera noan Osti Santuan Zeu zagozana, ogiaren irudipean. Jaungoiko ta gizon zarean ori, Osti zurian bizi zara, Belen'en eta Nazaret'en bizi zintzazan berbera. Sinisten dot. Eta laster, altarea itzita, neure biotzera etorriko zara. Sinisten dot laster, zure Gorputza artu dagidanean, Zu neugan bizi izango zareana ta ni Zeugan bizi izango zareana. Jesus maite!, sinisten dot; baiña geitu Zeuk nire sinismen au!

ITXAROPEN-EGINTZA. Laster zaitut neugaz, Jesu maite ori! Guztiz altsua zara Zu; eta ni, nazan guzti auzorionez eta ondasunez betetera zatorkidaz. Arima garbi-garbi egingo daustazula itxaroten dot, baita zure naia beti egiteko indartuko daustazula be. Jesus maitea, ez dagidala bein be galdu Zuganako uste on au!

MAITASUN-EGINTZA. Maite zaitut, Jesus ona; biotz-biotzez maite zaitut. Maiteagaitik bizitza emotea ei'da maitasunik aundiena... Zeuk egin dozu ori nigaitik. Eta ori gutxi zalakoan, nire biotzean sartzeko, ogiaren antz-irudipean gelditu zara, nik jan zagidazan. Zure maitasun aundiari, maitasunez erantzun nai dautsat; eta maite zaitut, Jesus. Baiña, maiteago izan zaidazala! Andra Maria,

nire Ama! Zeuk beste maite izan nai neuke Jesus. Lagundu Zeuk.

DAMU-EGINTZA. Garbatzen naz, Jauna, pekatu egiñaz, Zeu irainduaz. Zegaitik ez ete-dodaz gorde beti zure aginduak? Zegaitik ez ete-zaitut orain beste maite izan beti? Aurretantzean, ez neuke Zeu baiño maiteagorik beste iñor nai; eta maite zaitudalako, kristau zintzo izan nai dot beti. Damu dot, Jauna, oraindiño Zu maite ez izana!

Zoaz orain Jaunartzera. Abadeak, Osti santua erriari erakutsiez, berba batzuk esango dauz. Esan zeuk be abadeagaz batera: «*Jauna, ni ez naz duin Zu nire etxean sartu zaitezaz; baiña berba bat esan egizu ta osatu egingo naz*».

Jaunartuta gero, zoaz barriro zure tokira, ta jardun bertan barruan dozun

Jaungoikoagaz berbetan eta artu-emon gozoetan. Uste osoz eskatu egiozu bear dozun guztia; ez dautsu ezer ukatuko. Eskatu zuretzat, guraso, senide, adiskideentzat; eskatu pekatarien alde, Aita Santuaren alde, baita zure arerioen alde be.

Gero, astia ba'dozu, urrengo otoitzok egin:

LOIOLA'TAR IÑAZIO DEUNAREN
OTOITZA.

Kristo'ren arima, santutu nagizu.

Kristo'ren Gorputza, salbau nagizu.

Kristo'ren Odola, bete nagizu.

Kristo'ren saietseko ura, garbitu nagizu.

Kristo'ren Nekaldia, indartu nagizu.

Ene Jesus ona, entzun nagizu.

Zure zauri-barruan gorde nagizu.
Zugandik alde egiten ez egidazu itzi.

Arerio gaiztoagandik zaindu nagizu.


Nire eriotzaldian dei egidazu.

Eta Zeugana joateko agindu egidazu,

Zure Santuakaz betikotasun osoan
Zu goratu zagidazan. Amen.

OTOITZA.

Artu egizu, Jauna, nire eskubide osoa, baita nire gomutamen, adimen eta naimen guztia be. Daukadan eta dodan guztia Zeuk emon zeustan, eta Zeuri biurtzen dautsut; Zeurea dozu, ta naien dozunez erabilli egizu. Zu maite izatea ta zeure grazia emon egidazu, ta naiko dot.



JESUS GURUTZKOARI.

Ona emen ni, Jesus on eta gozoa, zeure aurrean auzpaz eta belauniko; gogorik bizi ta gartsuenaz eskatzen dautsut: nire biotz oni sinismen, itxaropen eta maitasunaren sua, nire pekatuen egiazko damua eta euretan aurrerantzean ez jausteko erabagi sendoa ezarri dagiozula. Nik, bitartean, maitasun aundiz eta damu zin-

tzoz, zure bost zauriak gogora ekarri ta ausnartzen dodaz; Dabid igarleak, ene Jesus ona! , Zutzaz esan eban au neure gogoan dodala: «Nire esku ta oiñak zulatu, ta nire azur guztiak zenbatu egin dabez».

ANDRA MARIA'RI.

Biurtu nigana zure begiok, Maria Birjiña goragarri orrek! , orain zure begien atsegin-poza egiñik nago-ta. Eskatu nire alde zure Seme maitemaiteari, bere gorputz-odol osasungarria jan-edariz emon daust-eta. Eskiñi egiozuz zeure irabaziak nire utsegin eta bearrizan aundien orde. Eskerrak emon egiozuz nire izenean, eta mesede barriak eskatu. Nire gorputz eta arima bere graziz eta mese-

dez bete bagarik ez daitela nire biotz-barrutik joan. Amen.

Elizatik urten baiño len, egiozu Jesus maiteari maite-agur sutua. Eta zoaz; baiña, ez aztu: Jesus zeugaz daroazu, Jesus'en etxe bizi zara. Eta maite egizu lagun-urkoa, ta izan ona gaur zure inguruko guztientzat.

ENTZUN, GAZTETXO: Pekatu astunik egin ezik, egunero jaunartu daikezu, asmo zuzenez eta gogo beroz altarara urreraturik. Gorputzaren aldetik, barriz, auxe da jaunartzeko bear dan baraua: ordubete lenagotik ezer jan eta ardao-gauzarik edan bagarik egon. Urak ez dau baraua austen.

ONA EMEN, GAZTETXO ZAREAN ARTEAN IKASI BEAR DOZUN BESTE GAUZA BAT: *Gogozko Jaunartzea egiten.*

Al daikezun guztietan altaran dagoan

Jesus artzera joan bear dozu; bere Aragia jan eta bere Odola edan. Berak esan euskun, bizi izateko ori nai ta naiezkoa dala. Baiña, gura izanda be, ezin beti jaunartu. Ori jazo dakizunean, egizu *Gogozko Jaunartzea*. Agertu egiozu Jesus'i beragaz bat egiteko gogo, ta esan egiozu, besterik ezean, zure gurari ori betetera etorteko zure biotzera.

GOGOZKO JAUNARTZEA EGITEKO
OTOITZA.

Jesus ona! Ezin naz ni orain Zugana joan; ezin zaitut ogiaren antzirudipean artu ta jan. Nai izango neuke, baiña ezin. Alan be, zatorkidaz nire biotzera; maite-maite zaitut; santu egin nagizu. Emon egidazu zure naia beti egiteko bear dodan indarra. Zatorkidaz, Jesus maite-laztan ori, eta bizi beti nire biotzean. Amen.



ILLEKO LENENGO BARIKUA

ONA EMEN, GAZTETXO ZAREALA,
EGIN BEAR DOZUN BESTE GAUZA
EDER BAT: *Bederatzi lenengo bari-*
kuetako Jaunartzea.

Alakoke'tar Margarita Maria'ri bein baiño geiagotan agertu yakon Jesus'en Biotza; berba egin be, bein baiño geiagotan egin eutsan. Bere Jaungoiko-Biotza maite dabenentzat agintzari ederrak agindu eutsazan. Amabi agintzarrietatik ederren eta pozkarriena, auxe izan zan: «*Nire Biotzaren negurriz-gaiñeko errukiak eta nire maitasun alguztidunak illen lenengo bederatzi bariku jarraietan jaunartu dagien guztiai, ez dirala nire asarrean ilgo agintzen dautset, ezta elizakoak artu bagarik be; eta azken-ordu larri aretan nire Biotza igesleku ziurra izango dabela.*»

Berba gutxitan esanda, auxe da Jesus' en Biotzak, bederatzi lenengo barikuetako Jaunartzeak uts egin bagarik egiten dabezanaei agintzen dautsen mesede aundia: *ZERURA JOANGO DIRA-LA*. Ezin on aundiagorik emon!

Jaunartzen asi ta bereala, txikia zarea, egin bear dozu *bederatzi lenengo barikuetako* lan eder ori.

Jaunartzea da naiko, beste bagarik. Pekatu astunik bagarik ba'zagoz, ez da bearrezkoa autortzea; ez dago beste otoitzik esan bearrik. Ondo jaunartuaz, eginda dago, mesede aundi ori jaristeko, egin bear dan guztia.

(Alan be, bariku orretan autortu, Jaunartu ta Aita Santuaren asmoen alde otoitz eginda, parkamen osoa irabazten da).

Eta, nai ba'dozu, otoitz au esan daikezu lenengo barikuetako Jaunartze-ondoren:

Jesus'en Biotz maite-goza! Lenengo bederatzi bariku jarraituetan

jaunartu dagien guztiai zeure adiskidetasunean ilgo dirala agindu dautse zure Biotz orren maitasun eta erruki aundi-aundiak. Erruki zakidaz, Jaun ori!, eta zure agintzari ori gogoratuturik, emon egidazu nire pekatu guztiak gorrotatzeko laguntza ta zure maitasunean ilteko zoriona.

Jaungoikoaren etxe ta zeruko ate zarean Jesus'en Biotza: erruki zakiguz.

Eske doakizuzan guztientzat aberats zarean Jesus'en Biotza: erruki zakiguz.

Zugan ilten diranen itxaropena zarean Jesus'en Biotza: erruki zakiguz.

Jesus'en Biotz maitea: Zeugan dot nire ustea.

LENENGO BOST LARUNBATETAKO
(ZAPATUETAKO) JAUNARTZEA.

Jaungoikoaren morroi izateko gagoz munduan; eta, Jaungoikoa otseinduz, geure arima zeruratzeko. Orretan dago gure betiko zoriona. Beraz, lan orretan ziur jokatu bear dogu.

Orrexegaitik egin bear dozuz lenbailen *bederatzi lenengo barikuko Jaunartzeak*.

Orain, gogoan artu beste au:

Jesus'en Biotzak lenengo barikuetako Jaunartzeentzat aginduta daukana berbera dauko aginduta Andra Maria'k lenengo bost zapatu jarraituetan jaunartu dagianari: *Berak lagunduta, zerura joango dala alako!*

Zeuk be egin bear dozuz, eta lenbailen egin be. Ama Birjiñiak berak eskatzen dautsu ori.

Ona emen orretarako egin bear dana:

1) Bost lenengo zapatu jarraituetan jaunartu.

2) Autortu. (Amabostean beingo autortza naiko da).


3) Bost ezkutapeneko Errosarioa esan.

4) Ordu lauren baten Errosariooko jazopenak ekarri gogora ta ausnartu.

5) Guzti ori, Andra Maria'ren Biotz Garbiari egiten yakoan birao, pekatu ta gaiztakeriak ordaintzeko asmoz egin.

Gauza erraza eskatzen yatzuna ta gauza aundia emongo yatzuna. Kistau batek be ez leuke gelditu bear, bein eta barriro ta sarritan, Andra Maria'k eskatzen dautsana egin bagarik.

Zuk, beintzat, egizu lenbailen, eta zeuk izango dozu mesede ta irabazia.



AGURTZA (ERROSARIO) SANTUA

Zure biotz-biotzean sartuta daukazu, umea izanarren, Ama Birjiñaganako maitasuna. Ama dozu, zeruko zure Ama. Eta orrexegaitik, Berak be maite zaitu. Gaiñera, Jesus'ek Andra Maria aberats egin dau: Berak be ama dau-ta!

Aberatsa dala ta maite zaituala... Zer bear dozu geiago, uste osoz Berari eskatzeko? Maria'ren bitartez zabaltzen dauz Jaungoikoak zeruko ondasun eta mesede guztiak. Maite egizu, ba. Uste ona izan egizu Aregan. Eskatu egiozu.

Ama Birjiñari pozik aundiena emoten dautsan otoitza zein dan, jakin nai dozu? *Errosario Santua*. Ama Birjiñak berak eskatu dau bein baiño geiagotan, Errosarioa esateko. Etxeko guztiak alkarregaz esatea gauza guztiz ederra

litzake, len gure etxeetan egiten zanez. Zuenean esaten ez ba'da, egin zuk alegiñak oitura on au sartzen. Bestela, zeuk bakarrik esan. Ona emen zelan egin bear dozun:

Gurutze Santuaren... Jesukristo neure Jauna...

B.—Jauna, neure ezpanak edegiko dozuz.

E.—Eta nire agoak zeure gorape-nak iragarriko dauz.

B.—Jauna, lagun zakidaz.

E.—Jauna, niri laguntzera bizkor zatorkidaz.

B.—Aintza Aitari, ta Semeari, ta Espiritu Santuari.

E.—Len lez, orain, beti ta amai-bagako egunetan. Amen.

POZEZKO EZKUTAPENAK (misterioak)
(Astelen eta eguenetarako).

Lenengoa: Jaungoiko - Semearen Gizakundea. (Aita gurea, 10 Agur Mari, ta Aintza Aitari).

Bigarrena: Andra Maria'k bere lengusiñari egin eutsan ikustaldia.

Irugarrena: Jaungoiko-Semearen Jaiotza.

Laugarrena: Andra Maria'ren elizan sartzea.

Bosgarrena: Jesus Umea galdu ta elizan aurkitzea.

NEKE-SAMIÑEZKO EZKUTAPENAK.
(Astarte ta barikuetarako).

Lenengoa: Jaunaren otoitza Jesemani'ko ortuan. (Aita gurea, 10 Agur Mari, ta Aintza Aitari).

Bigarrena: Jaungoiko - Semea zigordakaz astindua.

Irugarrena: Jaunaren arantzazko koroia.

Laugarrena: Jesus Gurutze astunaz zamatua.

Bosgarrena: Jesukristo'ren Gurutzeko eriotza.

AINTZAZKO EZKUTAPENAK.

(Eguazten, zapatu ta domeketarako).

Lenengoa: Jaungoiko - Semearen berbizkundera. (Aita gurea, 10 Agur Mari, ta Aintza Aitari).

Bigarrena: Jaunaren zerura igokundera.

Irugarrena: Espiritu Santuaren etorrera.

Laugarrena: Andra Maria'ren zerura jasokundera.

Bosgarrena: Andra Maria'ren Bureskundera (koronaziñoa).

ANDRA MARIA'REN ARRENTZA.

(edo Letaiñia).

Jauna, erruki zakiguz.

Kristo, erruki zakiguz.

Jauna erruki zakiguz.

Kristo, entzun gagizuz.

Kristo, arren entzun gagizuz.

Zeruko Aita Jaungoikoa, erruki zakiguz.

Jaungoikoaren Seme, gizonen birroslea, erruki zakiguz.

Espiritu Santu Jaungoikoa, erruki zakiguz.

Irutasun deun, Jaungoiko bakarra,
erruki zakiguz.

Maria deuna, otoi gure alde.

Jaungoikoaren Ama deuna, otoi...

Birjiñen Birjiña deuna, otoi...

Kristo'ren Ama, otoi...

Jaungoikozko graziaren Ama, otoi...

Ama guztiz garbia, otoi...

Ama guztiz errubagea, otoi...

Ama loi-bagea, otoi...

Ama kutsubagea, otoi...

Ama orbanbagea, otoi...

Ama maitagarria, otoi...

Ama miragarria, otoi...

Burubide oneko Ama, otoi...

Egillearen Ama, otoi...

Eroslearen Ama, otoi...

Birjiña guztiz zurra, otoi...

Birjiña gurgarria, otoi...

Birjiña goragarria, otoi...

Birjiña altsua, otoi...

Birjiña errukiorra, otoi...

Birjiña zintzoa, otoi...

Zuzentasun-izpillua, otoi...

Jakituriaren jarlekua, otoi...

Gure pozaren iturburua, otoi...

Gogozko ontzia, otoi...

Ontzi omengarria, otoi...

Eraspen-ontzi bikaiña, otoi...

Larrosa miragarria, otoi...

Dabid'en torrea, otoi...

Marfillezko torrea, otoi...

Urrezko etxea, otoi...

Alkartasun-kutxa, otoi...

Zeruko atea, otoi...

Goizeko izarra, otoi...

Geisoen osasuna, otoi...

Pekatarien igeslekua, otoi...

Atsekabetuen pozkillea, otoi...

Kristauen laguntza, otoi...


Aingeruen Erregiña, otoi...
 Errigurasoen Erregiña, otoi...
 Igarleen Erregiña, otoi...
 Apostoluen Erregiña, otoi...
 Martirien Erregiña, otoi...
 Autorleen Erregiña, otoi...
 Birjiñen Erregiña, otoi...
 Deun guztien Erregiña, otoi...
 Jatorrizko orban bagarik sorturiko
 Erregiña, otoi...
 Zerura jasoriko Erregiña, otoi...
 Agurtza guztiz deunaren Erregiña,
 otoi...
 Bakearen Erregiña, otoi...
 Munduaren pekatuak kentzen dozu-
 zan Jaungoiko-Bildotsa, parkatu
 eiguzu, Jauna.
 Munduaren pekatuak kentzen dozu-
 zan Jaungoiko-Bildotsa, entzun
 gagizuz, Jauna.

Munduaren pekatuak kentzen dozu-
 zan Jaungoiko-Bildotsa, erruki za-
 kiguz.

B.—Otoiz egizu gure alde Jaun-
 goikoaren Ama done orrek.

E.—Kristo'ren agintzariak jadetzi
 daikeguzan.

OTOITZ EGIN DAIGUN: Emon eigu-
 zu beti zure menpekooi, Jaungoiko
 Jaun orrek, gorputz eta arimako osa-
 suna; eta Maria beti Birjiña gora-
 garri ta doatsuaren bitartez, oraingo
 illunalditik urten gaitezala ta betiko
 poza lortu daigula. Kristo gure Jaun-
 aren berberaren bidez. Amen.



«EGUNEROKO MEZA» LIBURU-
TIK ARTUTAKO OTOITZ BA-
TZUK

JESUS UMETXOAREN EGUNEKOA

Eiguzu, arren, Jaungoiko alguzti-
dun orrek: zure Seme bakarraren
aragizko Jaiotza barriak, pekatuaren
buztarpean gaukazan antxiñako mo-
rroitzatik askatu gagizala. Kristo

gure Jaunaren berberaren bidez.
Amen.

JESUS'EN IZEN SANTU EGUNEKOA

Zure Seme bakarra gizadiaren Sal-
batzaille egiñik, izena JESUS emon
zeutsan Jaungoikoa: egizu biotz
onez, izen santu au lurrean gurtzen
dogunok, zeruan be Bera ikusiaz
zoriontsu izan gaitetzala. Kristo gure
Jaunaren berberaren bidez. Amen.

GORPUZTI EGUNEKOA

Sakramentu arrigarri onetan zure
Nekaldiaren gogorapena itzi dausku-
zun Jaungoikoa: eiguzu, zure Gor-
putz eta Odolaren misterio santuak
ospatzen doguzan ezkerro, zure eros-
penaren irabaziak somau daiguzala

gugan beti. Amaibagako egunetan errege bizi zara-ta. Amen.

JESUS'EN BIOTZAREN EGUNEKOA

Gure pekatuak zauritu eben zure Semearen Biotzean, zeure maitasunaren ondasun ezin-agortuak errukiz emon dauskuzuzan Jaungoikoa: eiguazu, gure oneraspen (deboziño) beroa Berari eskiñirik, zor dauztagun ordaiña be emon daiogula. Kristo gure Jaunaren berberaren bidez. Amen.

JESUKRISTO ERREGEAREN EGUNEKOA

Munduaren Errege dan zure Seme maiteagan guztia batu nai izan dozun Jaungoiko alguztidun eta betikorra: egizu biotz onez, pekatuaren zauriz

banatuta dagozan munduko erri guztiak, zure agintaritzza guztiz bigunera etorri daitezala. Amaibagako egunetan errege bizi da-ta. Amen.

ESPIRITU SANTUARI

1. Zatoz, Espiritu Santu, ta bialdu egizu zerutik zure argi-izpia.
2. Zatoz, gaisoen aita; zatoz, doai-emoille, biotzen argi.
3. Poz-emoille bikaiña, etxelagun atsegin, bizkortzaille gozo.
4. Lanetan atsedean, nekean bake, malkoetan pozgarri.
5. Bete egizu, argi guztiz doatsu orrek!, zure zintzoen biotzeko sakonak.
6. Zure laguntza bagarik, ez dau gizonak ezer, ez dauko ezer on danik.
7. Garbitu egizu zikin dagoa-

na, busti legor dagoana, osatu zauri guztiak.

8. Bigundu egizu gogor dagoana, berotu otz dagoana, zuzendu oker dagoana.

9. Emon egiezu zugaran ustea daben zintzoai zure zazpi doai santuak.

10. Emon egiezu onoiemen-saria, emon azken-osasuna, emon betiko zoriona. Amen.

BEGOÑA'KO ANDRA MARIA'REN
EGUNEKOA

Aingeruak iragarri ebanez, Maria Birjiña doatsuaren sabelean zure Itzak (Jesukristo'k) aragia artzea nai izan zenduan Jaungoikoa: egizu, Jaungoikoaren Ama dala sinisten dogunok, aren bitartekotasunaren la-

guntza izan dagigula zure aurrean. Kristo gure Jaunaren berberaren bidez. Amen.

MIKEL GOIINGERU DOATSUAREN
EGUNEKOA

Gizonen eta aingeruen egitekoak era miragarriz banatzen dozuzan Jaungoikoa: egizu samurkiro, zeruan zure morroketan diarduenak, lurrean gure bizia zaindu dagiela. Kristo gure Jaunaren bidez. Amen.

GARBITOKIKO ARIMEN EGUNEKOA

Zintzo guztien Egille ta Erosle zairean Jaungoikoa: zure morroien eta mirabeen arimai emon egiezu pekatu guztien garbitzea: gure eskarien bidez, beti gura izan daben parkamena

jaritsi dagien. Amaibagako egunetan Errege bizi zara-ta. Amen.

SINISMEN-ZABALKUNDE MEZAKOA

Gizaki guztiak zeruratu daitezala ta egia ezagutu dagiela nai dozun Jaungoikoa: bialdu egizuz langilleak zure solora ta zure itza nasai-nasai iragarri dagiela: zure irakaspena zabaldu ta gora jaso daiten, eta erri guztiak Zeu bakarrik, egiazko Jaungoiko ori, autortu zagiezan, baita Zuk bialdu zenduan zure Seme ta gure Jaun Jesukristo be. Amaibagako egunetan Errege bizi da-ta. Amen.

EDOZEIN BEARRIZANETAN

Gure igesleku ta indarra zarean Jaungoikoa: errukiaren iturburu za-

rean ezkerro, entzun biotz onez zure Elizaren eskariak; eta eiguzu, sinismenez eskatzen doguna, egitan jade-tsi daigula. Kristo gure Jaunaren bidez. Amen.

ESKERRAK EMOTEKO

Zure errukiak ez dau azkenik, Jauna, ta neurrik ez zure ontasunak: eskerrak emoten dautsuguz, Jaun aundi orri, artutako mesedekaitik, zure errukia beti eskatuez; eta eskariak egiten dautsuezanai emon egiten daursezuzan ezkerro, ez egizuz bertan -bera itzi, betiko sariak artzeko gertatu baiño. Kristo gure Jaunaren bidez. Amen.



ABESTIAK

MEZATAN ABESTUTEKO

Sartzerarakoa

Biotz batez alkaturik,
Zeugana gatoz, Jauna.
Emoiguzu zure argi,
grazi ta maitasuna.
Entzun, arren, Jauna!

Oparia eskintzean

Artu, Aita zerukoa,
Jaingo ta Jaun betikoa!
Onartu gure eskintza:
ogia eta ardaoa.

Ona ogia guztiz garbia.
Arren, guztiai emon grazia,
eta illari zure bizia.
Artu, Aita zerukoa...

Azkenerakoa

Jainko gizon egiñari,
agur, ospe, onespena.
Jesukristo Erregeri
esker, otoitz, maitasuna.

Mundu guztiak bete daiala
Jesukristo'ren Legea;
mundu guztira eldu dadilla
Arek dakarren Argia.
Jainko gizon egiñari...

Andra Maria'ri agurra

Lurdes'ko lorea,
Ama maite Maria!
Betiko da zurea
euskaldun jentea.

Aur bat dozu artu,
Ari zu agertu;
orra danok deitu,
lurra zeruratu.
Lurdes'ko lorea...

OGI ZERUTIK etorria
Zeu zara gure poz guztia.
Bildots santua ara emen
munduko gatzak kentzearren.
Sagrarioan nun dagoen
lurra zeruaz bat egiten.

Misteriorik aundiena,
Jaungoikoaren oroimena;
Gozotasunik gozoena,
Gizonentzako dagoana.

OR ZAGOZ, JESUS, altarean;
gorde nai zaitut biotzean.
Zeruetako Jaun aundia,
egiñik gure janaria.
O maitetasun ugaria,
gizonarentzat geiegia!

OSTIAN BIZI ZARA
gau ta egun nigaitik;
maiteko zaitut beti
biotz-biotzetik.

Gurutziltzatu zaitu inpernuak,
eta munduak ukatu;
Sagrarioan, bakardadean,
or illunpean baztatu.
Baiña guk, Jesus, Zeu maitatzea
edo iltea nai dogu.

IZAN ZAITEZ BETI

Jesus maitea,
gure biotzaren
Jaun ta jabea.

Jesus'en Biotza
dago suturik,
maitasuna agertzen
alde guztitik.

Nun aurkituko da
biotz gogorrik,
biotz onen sutan
urtuko ez danik?

JESUS, GURE JAUN MAITE,

Aita maitetsua!
Damu dogu guztiok
Zu naigabetua.

Josirik ikustean,
Gurutze orretan Zu,
Errukiz, ai, biotza
nok urratuko ez dau?
Baita ba'leuko bere,
arri biurtua:
damu dogu guztiok
Zu naigabetua.

DAMU DOT, Jauna, biotz-biotzez,
Zu naigabetu izana;
ez, ez geiago pekaturikan,
nire Jaungoiko laztana.
Miñaren miñez, Jesus maitea,
daukat biotza lerturik,
ikusirikan nire biotza
dana pekatuz beterik.
Zure oiñetan orain naukazu
begi-biotzak urtutzen.
barru-barruko negar samiñez
parkaziñoa eskatzen.

AGUR, AGUR AMA,
gure Amarik onena!
gure erri dana
artu ta zaindu, Ama.

Zure semeoi eskerrak
jadetsi eiguzuz:
danok zerura joan gaitezán,
Ama, egizu.

AGUR, JESUS'EN AMA,
Birjiña maitea!
Agur itxasoko izar,
diztiratzaillea!

Agur zeruko eguzki
 pozkidaz betea!
 Agur pekatarien
 kaia ta estalpea!
 2. Baiña Zugandik alde
 biotzak ezin dau,
 Zuregana dijoa,
 Zeugan bizi nai dau.
 Birjin bardinbagea,
 Onetsi nagizu:
 Agur, Ama neurea,
 Agur, agur, agur.

BEGOÑA'KO AMARI.
 Bizkai'ko seme leialok,
 otoitz-ordua eldu yaku:
 gure Begoña'ko Amari
 biotza eskiñi daiogun.
 Itxaso eta lurtean
 maitasunez zaintzen gaitu.
 Begoña'ko Ama biguna,
 zure onespina emoiguzu.

AGUR, BALENTIN BERRIO-OTXOA,
 Elorrio'ko semea;
 zeure pekoan artu egizu
 Euskaljerri'ko jentea.

AURKIBIDEA

	Orri
Goizeko otoitzak	9
Gabeko otoitzak	15
Buruz ikasteko otoitzak	20
Meza Deuna	23
Agur Mariak (Anjelusa)	41
Espiritu Santuari	42
Altarako Jesus'i ikustaldia	43
Biraoen ordain-otoitza	47
Aita Santuaren alde	48
Abadeen alde	49
Andra Maria'ri eskintza	53
Nazaret'eko Sendi doatsuari	54
Jesus'en Biotzari	55
Loiola'tar Iñazio deunari	55
Xabier'ko Prantzisko deunari	56
Berrio-Otxoa'tar Balentin doatsuari.	57
Maia bedeinkatzeko	58
Lantxoan eskintza	59
Eriotza onartzeko	59
Il-zorian dagozanen alde	60
Garbitokiko arimen alde	60

Autortza	63
Maitte-damua	73
Jaunartzea	75
Gogozko Jaunartzea	84
Illeko lenengo barikuak	87
Illeko lenengo zapatuak	90
Agurtza (Errosario) deuna	93
“Eguneroko Meza” liburutik artutako Otoitz batzuk	102
Abesti-sorta	111
Aurkibidea	117

1965'GARREN URTEKO

URRILLEAN
AMAITU ZAN

«ENCUADERNACIONES BELGAS»

IRARKOLAN
BILBAO

